

Azpeitiko Matxinada (eta 3) 1766. Errepresioa eta Josulagunak

Deia, 1983-08-31.

Donostiatik Azpeitira irten zen espedizioa, Diputazio Foralaren baimenarekin eratua izan zen: 300 soldadu eta 1200 gizon armatu Donostiako alkate zen Manuel de Arriola buru zuela.

Arriolak bidetik bi eskutik idazten ditu Diputaziora: bat Asteasutik, *apirilaren 13an*, bestea Elgoibartik, eta azken honetan beste gauzen artean dio: "Herri honetan gizon gutxi geratu da, eta gaizkileak aurkitzeko nire deiari erantzun diotenak ez dute hitz egin nahi izan; hala ere egin dut altxa ziren buru batzuen zerrenda. (...) Bihar goizeko zazpiretan irtengo naiz bi dibisioekin Eibarrera eta Soraluze-Plaentzia aldera, eta gero kostaldera joateko asmotan (*maiatzak 1*)".

Otazuk dionez, hirurogei zalapartari gartzelaratu zituzten, eta prozesua ireki zen. Gurrutxagak, berriz, xehetasun hauek ematen dizkigu: epaileak isun asko ezarri zuen Azpeitian; beste batzu erregearen galeretara bidaliak izan ziren, eta armadara, Zaragozara; andre batzu Probintziatik herbesteratuak izan ziren, eta Udaleko agenteak Ceutako presondegira kondenatuak.

Josulagunak ere nahasi zituzten arazo honetan.

Gurrutxagak dionez, Azpeiti eta Azkoitiko "zaldunak" begi txarrez ikusten zituzten saildutegia eraikitzeke lanetan ari ziren langileak. 1000 inguru. 1682an eman zitzaion obra honeri hasiera; lan luzea, 1766an oraindik amaitu gabe baitzegoen. Langile horiek denak euskaldunak ziren. Ustegabeen harrapatzeke, D. Benito Barreda, Korrejidoreak, Errejimentuarekin eta gizon armatuekin talde bat egin eta saildutegiaruntz abiatu zen. Langileak diardunaldia amaitu baino lehentxoago heldu ziren, eta sarrerako eskaileretara inguratu zirenean Korrejidorea aurreratu zen, gizonak hedatu ziren agindu bezala, eta hark oihera egin zuen: "Preso lantegi guztia".

Eta aparato handiarekin, bandera eta guzti, egin zuen korrejidoreak miaketa, ez baitzen Josulagunetz fidatzen.

Loiolako erretoreak Iruñeko gotzaiari eman zion gertatutakoaren parte *apirilaren 21ean*, ez baitzuen korrejidoreak Elizaren inmunitatea, ezta gizabidezkoa ere, errespetatu. Baina Iruñara aurretik, Probintziako armada agintzen zuenari idatzi zion, on beharrez, eta bi Josulagunek eraman zuten gutuna eskuz-esku; entregatzerakoan, Gipuzkoako komandante jeneralarekin hitz bat izan zuen Josulagunetako batek, eta topatze honen ondoren militarrek Gaztelako Kontseilura idatzi zuen, Erregea iraindu zuela esanez.

Madriilen ministroek, eta Erregearen konfetsorea bera ere, Josulagunen aurka jarri zuten Karlos III; eta aurreko urteko *apirilak* (1767), Penintsulatik bota zituzten.